

# BERRIGARA


zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, apirilak 18



## Maitte Aristegi

Nekazarien ahotsa

# OPEL



## TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46

BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

Tfnok: 70 05 86

PEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76.12 21 Bergara  
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea  
babesteko gande*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**



## Kafe

Bergara erdi-erdian, txoko dotore eta atsegina duzu KAFE zabaldu berria.

Gosariak, meriendak, pintxoak edota kopak hartzeko toki ederra, terraza eta guzti. Goizean goiz zabaltzen dugu egunero.

Zatoz, Bergarako KAFE berrira, Irala kaleko 10ean. Telefonoa: 76 71 22.

KAFE.



## BERRIGARA

OTALDE JAUREGIA  
ESTO Bergara  
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

## Argitaratzailea:

GUIN Elkartea.

## Zuzendaria:

Agustín Azkarate

## Arloak:

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak

Argazkiak

## Argazkiak:

Argazkiak

Argazkiak


Argazkiak



Aldizkari honek Bergarako  
Aldizkariaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jaurirantzaren Kultura  
Aldizkariaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## FERNANDO IDIGORAS

### Odol emaleen elkartekoa

- Datorren apirilaren 27an Gipuzkoako odol emaleen batzarra izango da Eibarren...

- Aurtengoa odol emaleen XXXII. asanblada izango da. 12etan meza eta ondoren asanblada izango da San Andres parrokiaren eta 14:30etan bazkaria Unibertsitate Laboralean. Bazkarirako izen-ematea 76 16 24/22 36 telefonoetan edo Puy farmazian egin daiteke.

- Asanbladan zer aztertuko duzue?

- Elkarteko diru kontuak eta azken hilabeteerako odolaren mugimendua aztertuko dira. Gipuzkoan 32.000 odol emale gara eta operazio denak betetzea lortu dugu. Eta azken ikerketen arabera odolaren kalitatea ere hobetzen doa. Al-



de horretatik oso pozik gaude. Bestalde, Eibarren dagoeneko 25 aldiz odola eman dutenak omenduko dira, horien artean Bergarako 24 lagun. Herriko odol emaleak, laguntzaileak eta sinpatizanteak ere Eibarrera etortzea nahi genuke. Odola ematerik izan ez arren euren laguntza ematen digutenei eskerrak eman behar dizkiegu.

**“Eibarreko batzarrera odol emaleen laguntzaile guztiak etortzea nahi genuke”**

## I T U R R I O N E T I K

### Udako kirol eskola uztailean jarriko da martxan

Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek, Kirola Euskaraz programaren barruan, aurtengo Udako Kirol Eskola proiektu berria jarriko dute martxan. Uztaileko hirugarren astean, Euskal Herri osoko kirolariei aste-bete elkarrekin igarotzeko aukera emango zaie, euren prestakuntza eta euskararekiko motibazioa areagotzeko asmoz. Aipatutako kontzentrazioa atletismoa, pilota, eskubaloia eta futbola praktikatzeko duten 16 urtetik gorako guztiei zuzenduta dago. Kirol horietako teknikoentzat ere ikastaroak izango dira. Eskolak egoitza nagusia Eibarren izango du eta Bergaran, berriz, eskubaloia ikastaroak izango dira.

E S A N  
D U T E

“Futbolarena zoramena da. Boom handi bat eman da futbolarekin eta ikusi behar etorkizunean nora doan guzti hau.

Nik ez dut sekula jendea futbolean aurtengo moduan ikusi. Telebistei esker sartu den diru mordoarekin jendea tentsio handiagoz somatzen dut futbol zelaietan, batez ere diru gehien inbertitu duten futbol talde handien zelaietan”

#### AGUSTIN ARANZABAL

Realeko jokalaria  
EGIN

“Ez nago presionatuta. Pronostikoek ez naute kezkatzen eta oso lasai nago. Besteek txapelduna izan naitekeela esateak ez du ezer esan nahi. Txapelduna izango naiz maiatzaren 11era heldu eta orduan irabazten badut, bestela ez. Eta horretarako oso arerio gogorra den Errandoneari irabazi behar diot lehenbizi. Partidura ondo helduko naiz, ondo lan egin dut eta orain partidua on bat jokatzea besterik ez da falta”.

**AITOR ELKORO**  
Pilotaria  
EL DIARIO VASCO



### LA SOMBRA DEL DIABLO

Eguakitza: 22:30

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

▼▼ **Los del tonos** taldearen kontzertua izango da bihar zapatua gaueko 11etatik aurrera Jam aretoan. Aurretik

*Los del tonos* taldeak ekarritako DJ baten saioa izango da 10etan hasita.

Sarrerak 1.500 pezetan salduko dira. Ostegunean, hilak 24, *Fish fucking* taldearen emanaldia 10etan.



▼▼ **Aranzadi Ikastolaren** ospakizunekin jarraituz, bihar eguerdirako Aranzadi dantza taldearen kalejira eta dantzak iragarri dira eta arratsaldeko 6etarako "Kakax, Kokox eta Kirriki" pailazoaren emanaldia Frontoian. Domekan, 7etan, Xamatzen kalejira, zangaluzeak eta trikitilariak eta egunean, hilak 24, "Ikastolaren oraina eta geroa" izenburuko mahaingurua izango da 7etan UNEDen.



## Zinea

▼▼ **Alan J. Pakula** zuzendariak **Harrison Ford** eta **Brad Pitt** moduko izarrak bildu ditu bere azken filmerako. Irlandar jatorria duen *Tom O'Meara* New Yorkeko polizia (**Ford**) *Rory Devaney* irlandar gaztea (**Pitt**) bere etxean hartuko du eta hasieratik ondo moldatuko dira elkarrekin. Baina *Tom* polizia da eta *Rory*, berriz, bere kausa defenditzeko merkatu beltzean armak lortu nahi ditu...

## Deiak

▼ **1963**an jaiotakoen bazkaria hilaren 26an. Izen-ematea Arkupe, Ariznoa, Kortazar eta Urratsen.

▼ **Argazkiak.** Bergarako Igeri Elkartearen 25. urteurrena dela eta, elkarteko argazkiak Kultur Etxean ikusgai domekara arte.

▼ **Erakusketa.** Aranzadi Ikastolako istoriari buruzko argazkiak eta ikasleen eskulanak Ikastolako sarreran ikusgai hilaren 27ra arte.

▼ **Margoak.** Camino Mugerza margolariaren lanak Nahikarin.

▼ **Aranzadi Ikastolan** ibilitakoen bazkari herrikoia hilaren 27an Seminarioan. Izen-ematea (hilaren 22ra arte) Kortazarren, Ariznoan edo Ikastolan bertan.

## Ogia

▼ **Domeka 20:** Mizpildi.

## FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 18:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 19:** Camacho.
- ▼ **Domeka 20:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 21:** Puy.
- ▼ **Martitzena 22:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 23:** Estella.
- ▼ **Eguena 24:** Mozos.

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



## KORTA-ZAR

**Txokolategia**


*Pintxo eta ogibitarteko  
espezialitatea*

**OSTIRALETAN GOIZEKO  
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

# Mendi astea prest

## Igandetik ostiralera bitartean hainbat ekitaldi



Mendi astearen barruan, Iker Etxebarria eta Ramon Laskurainek diapositiba emanaldia eskainiko dute astelehenean.

**Domekan** emango zaio hasiera Udal Kirol Zerbitzuak, Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Jardun elkarteak elkarrekin antolatutako Mendi Asteari. Goizeko 8:30etan, argazki rallya eta Adarra mendira izango dira. Argazki rallyko partaideak Pol-Polen aurkeztu beharko dira ordu horretan eta 36 argazkiko roilo bana emango zaie. Ordubiak arte antolatzaileek agindutako gaiei buruzko diapositibak ateratzeko aukera izango dute. Aurtengo edizioan enborrak, gailurak, kolore horia, eskuak

eta astoak izango dira lan beharreko gaiak. Partaide bakoitzak, ondoren, gai bakoitzeko diapositibat aurkeztu beharko du. Datorren ostiralean bilduko da epaimahaia eta sari banaketa egun berean egingo da, 7etan UNEDeko aretoan izango den diapositiba emanaldiaren aurretik. Irabazleak 12.000 pezetako argazki materiala eskuratuko du, bigarrenak 10.000 pezetako kirol materiala eta hirugarrenarentzat 8.000 pezetako kirol materiala izango da. Antolatzaileek azken urteotako partaide-

tza haunditzeko itxaropena daukate eta beraz herriko argazkizaleei parte hartzeko deia egiten diete.

### Diapositiba emanaldiak

Mendi astearen barruan diapositiba emanaldiak izango dira. Astelehenean, Roman Laskurainek eta Iker Etxeberriak abuztuan Muztagatara (Txina) egindako espedizioaren diapositibak eskainiko dituzte, arratsaldeko zazpi terdian Miguel Altuna Institutuko edifizio zaharrean. Marti-

tzenean, berriz, Susi Elosegik India eta Kachemiran ateratako diapositibak erakutsiko ditu zazpi terdian aurrera UNEDko aretoan eta ordu eta toki berean, eguastenean, Felipe Uriartek "Pamier-eko bihotzean" izenburuko ikuskizuna emango du. Eguenean, berriz, Inurra-tegi anaiek, Sisha Pangmara egindako espedizioa azalduko dute 19:30etan Novedades aretoan eta, azkenik, eguakitzean, Jon Lazkano bergararrak Amin Brak-eko paisaiak erakutsiko ditu UNEDeko aretoan, 19:30etan.

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34


## ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskapareak...

## ARREGI

Eraikuntza  
materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraian.  
Tfnoa: 76 27 93



## El Puerto de Santa Mariatik

Kaixo!

Dagoeneko bada urtebete preso politikook mugagabeko borrokaldiri hasiera eman geniola. Ekimen desberdinak medio-gose grebak, itxialdiak... Euskal presoak Euskal Herrira lempi eutsita, sakabanaketa politikoari eta beronen aterpean gauzaturiko basatikeriei aurre egiteaz gain, gure kolektiboa Euskal Herrian berrelkar dezaten eskatzen dugu.

Sakabanaketaren hamarkada honetan jasan eta jasaten ditugunen zerranda amaigabea izango litzateke. Espainiar estatu zapaltzailearen gobernuak eta bere atzetikoeak, izan ere, hasiera hasieratik helburuak argi oso utzi zituzten: presoak pertsonalki zuzituz kolektiboa txikitzea, honela Euskadi Ta Askatasunarekin "negoziatu" ahal izateko euskal independentismoaren erendatzea baizik izango ez zatekeena.

Gurek eta bost pairatu arren, euskal presoek borrokan tinko segitzen dugu eta halaxe mantenduko gara ere harik eta Alternatiba Demokratikoa -mahai gainean ipini den bake proposamen bakarra alegia- gauzatzen deneino: ez dugu inola etsiko.

Arestian aipatu goiburua oihartzun handia lortu du euskal sozietatean, honen lekuko fidelak egunik egun ugalduz doazen herri ekimenak direlarik. Guk, presoek, ezer gutxi egin dezakegu borrokari eustea ez bada. Eta, hain zuzen ere, horretan dihardugu aspaldian burutzen ari garen gose greba bide.

Gutun honek errealitate horren berri zuzena eskaini nahi dizu geure mintzoaz. Zuregana pertsonalki jotzen dugu euskal herritar bezala badaukazu, egokia iruditzen bazaizu, zure ahotsa gehitzea guretzat hil ala biziko den garrasi honetan.

Gora Euskal Herri askea!

JOSE MARI ETXANIZ

## Murtziako espetxetik

Aupa lagunak! Nere atxiloketaren hamargarren urtea betetzen dan honetan pare bat lerro idaztera jarri naitzaizue agur gisara, prestatu dozuen ekitalditxoan irakurtzeko.

Badakit honezkero gure egoeraren berri ondo ezagutzen duzuela, mila aldiz errepikatu baitugu, bai presoak ateratako artikuloetan, bai Gestorakoek zein HB edo Senideen bitartez; gauzak horrela ez dut sakonduko gaia aski ezaguna delako, dena den aipatzekoa iruditzen zait oraindik ere gure eskubideak lortzeko gose grebetan sartu beharrak eta ia bi urteko borroka mugagabean murgilduta ibiltzea Euskal Presoen Kolektiboa, hain Demokrata diren Gobernariak ezer gutxi eginez horretaz. Horrez gain argudio bezala dispersioaren neurria, euskal presoek askatasun osoz gure etorkizuna erabaki ahal izateko pentsatuta ei dago, eta hau herritar maiteok barre eta gainetik burla egitea besterik ez da, ze, ondo dakite beraiek zer nahi dogun, horrela bidali genuelarik bakoitzak idazki bat Euskal Herrira hurbiltzeko eskatzen, beste guztiak aitzaki pobreak besterik ez dira.

Borroka aurrera doa, oztopo mordo batekin baina aurrera eguneko errealitatera egokitzen, eta nola ez apartatu honetan Euskal gazteriaren aportazio miressgarria aipatu behar. Egindako esfortzu guztiak pena merezi duela diotsuet bihotz bihotzez, denon artean eraikitzen baikaude Euskal Herri berri bat beste balore batzuetan oinarrituta eta izan ere Ezker Abertzalea da gizarte honek behar duen bezalako aldaketa burutzen daben indar bakarra.

Ez naiz sartu behar ezta ere beste alderdi politikoei hartu duten jarrerak salatzen, ondo ezagutzen dituzuelako eta historiak jarriko dituelako bakoitza bere lekuan. Guri geureari eustea tokatzen zaigu, indarrak metatuz, lehenbizi Alternatiba Demokratikoa lortu arte lehenengo urrats moduan eta edozein motatako

egizko abertzale borrokatu beharko zuena.

Bukatzeko ekitalditxo honetan ez diltut ahaztu nahi nere burkide diren Sali eta Julian, nere moduan borrokan aritzeagatik erbesteratuta daudenak, ze kartzelan ez egon arren herritik kanpo hainbeste urte egotea baldintza horretan gogorra suertatzen da benetan. Agur bero bat ere azkenengo errefuxiatua izan den Jose Luisi bake bidea proposatzearen jarraitua eta alde egin eta nola ez ba etxeko guztieri, neska lagun, ama, eta anai arrebeak, norbaitek omenaldiren bat merezi baldin badu eurak direlako, hainbeste urtetan gure aldamenean edukitzeagatik eta alde batetik bestera bidaiak egiten dabiltzanak politika honen ondorioak jasotzen.

Besterik gabe ba eutsi goiari segi gogor borrokan eta festan eta ea aguro izaten garen elkarrekin, denon artian lortuko dogu eta.

Langileak nagusi diren Euskadi bat eraiki arte, Gora Euskadi batua, euskalduna, sozialista eta independentea. Gora Euskadi eta askatasuna. Mila muxu denontzat.

XABIER OREGI "PANTI"

## Tiira biraka

ALEX UGALDE



**Langabezia eta pobreziaaren aurka**

Langabezia eta pobreziaaren aurkako legearen alde firmak biltzeko plataforma eratu nahi da Bergaran. Euskal Autonomi Elkartearen martxan jarri den ekimena da eta hainbat sindikatuk, auzo elkartek, gobernuz kanpoko erakunde edota giza eta kristau mugimenduk bultzatu dute. Asmoa, 30.000 sinadura bildu eta legebiltzarrean lege proposamen bat aurkeztea da. Bergaran plataforma eratzeko bilera egingo da datorren asteazkenean 19:00etan Kultur Etxean.

**Komiki Lehiaketa**

Datorren eguakitzean, hilak 25, eguerdiko ordu baterdietan amaituko da jaietako txoznak jartzeko eskariak egiteko epea. Eskaera orriak Udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke. Eskariak, irabaz asmorik gabeko erakunde edo taldeek egin ditzakete bakarrik.

**Konponketa serio eta garestia egin beharko da Agorrosin futbol zelaian**

**Agorrosingo** futbol zelaian orain dela hilabete inguru azterketa geoteknikoa egin zuen Labein enpresako teknikoek, ikerketaren ondorioak azaldu zizkieten asteazkenean Udaleko eta Bergara Kirol Elkarteke ordezkariei. Gogoratuko duzue, Agorrosin futbol zelaian zulo bat agertu zen otsailean eta hurrezkerok itxita egon da.

Labein enpresak presatutako txostenean jasotzen denez, Agorrosin futbol zelaia azpian, erdi inguruan, zulo handi bat ei dago, azpaldiko igeltsu meategiko galerietan filtratutako urak eraginda. Arazoari behin betiko irtenbidea topatu eta etorkizunean berriz ere lubizirik gerta ez dadin, hiru soluzio planteatzen ditu Labein enpresak: lehena, futbol zelai azpian pantalla haundi bat egitea eta ondoren galeriak eta zuloak tapatu eta ur filtrazioetatik isolatzea. Konponbide hau baztertuta geratu da garestiegia delako. Beste bi soluzioak hauek dira: futbol zelaia gainetik geomalla inpermeable batzuk jarri, edota bi metro diametroko ormigoizko losa batzuk jarri, ondoren, zuloak lurrez betetzeko. Az-



Agorrosingo futbol zelaia konponketa garestia ei du.

ken bi aukerak aztertuko dira, baina aurretik obrek ze kostu izango luketen jakin arte itxoin beharko dute Udalak eta Bergara Kirol Elkarteak. Aurrekontuak datorren astean faxez bidaltzekotan geratu dira Labein enpresak.

**Instituzioen laguntza**

Obrari aurre egiteko hainbat erakundeetako atea joko ditu BKEk, zelaia jabeak. Iñigo Zaitegi presidentek Berrigarari azaldu dionez, "Gipuzkoako Futbol Federazioa eta instituzioetara joko dugu dirulaguntzak eskatzeko. Jestiak egite-

ko orduan laguntzeko prest azaldu da Udalak. Bestalde, hortik ezer lortzen ez bada, futbol zelaia jabetza Udalari laga, beti ere futbol kanpoa erabiltzeko lehentasuna geuk izanda, eta obrei aurre egin diezaie-lak eskatuko diogu".

Arazoari irtenbidea aurkitzen zaion bitartean, Agorrosin itxita egongo da eta maiatzaren lehenerako iragarrita zegoen Realaren eta Eibarren arteko futbol partidua, Andres Alzelairen omenaldikoa, bertan behera geratu da; Bergara Kirol Elkarteke taldeek, bestalde, Ipin-tzan jokatu dute, datorren denboraldira arte behin behin.

**HILDAKOAK**

Jose Padilla Lopez  
Apirilak 11, 65 urte.

Juliana Imaz Martinez de Ibañeta  
Apirilak 15, 90 urte.

Felipe Ibañeta Bengoa  
Apirilak 16, 67 urte.

**KONDE**

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

**EGUREN**

**GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Díez  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta Plaza, 3 behea  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

**GURIDI** altzariak

**Era guztietako altzariak**

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

### Bizirik eguna

"Debekua gaindituz ekin prebentzioari" lemapean, Bizirik eguna antolatu du zapatu honetan Arrasaten, Askagintza taldeak. Hainbat jarduera izango dira, arratsaldeko 4retan hasi eta gauera arte: haurrentzako jolas parkea, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Goloka antzerki taldea, Koiuntura musika taldea, bertso saioa -Ion Sarasua, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin-, Ekekei Antzerki taldea eta Ke Rule taldearen rock kontzertua.

### EAJren Uri Batzarra

Datorren egunean, hilak 24, EAJren ohiko Uri Batzarra izango da arratsaldeko 8etan Batzokian. Alderdikide guztiak gonbidatuta daude batzarrean parte hartzeko.

### Benito Lertxundi

Aranzadi Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatu den Benito Lertxundiren kantaldirako sarrerak salgai daude Kortazarren, Pol-Polen, Ariznoan eta Ikastolan. Kantaldia datorren eguakitzean, hilak 25, gaueko 10:30etan Udal Pilotalekuan izango da eta sarrera 1.000 pezeta kostatzen da.

### 1943an jaiotakoak

Anaiarteko bazkaria izango dute 1943an jaiotakoek maiatzaren 1ean. Eguerdiko 13:15etan meza izango da Santa Marinaran; ondoren, 14:30etan, bazkaria Antxonin jatatxean. Izena emateko epea apirilaren 29an bukatuko da eta honako telefono hauetan eman daiteke: 76 22 90 (Maribel Zeziaga), 76 16 13 (Arantza Askasibar), 76 29 47 (Juanjo Arrieta) eta 76 53 22 (Juan A. Fernandez).



Santa Marinako dorreko kareharria egoera kaskarrean dago, erosioaren eraginez. ARTXIBOA.

## Santa Marinako kanpandorrea konpontzeko laguntza jaso da

*Diputazioak 15 milioi emango ditu; obrak hastear daude*

Diputazioak 15 milioi pezetako dirulaguntza emango dio Santa Marina parrokiari kanpandorrea konpontzeko. Aurrekontu osoa 25 milioi pezetakoa da eta Diputazioak 5 milioi emango ditu aurrean eta beste 10 datorren urtean. Obrak hurrengo egunetan hasiko dira.

Santa Marinako kanpandorreko kareharria, erosioaren eraginez, oso egoera kaskarrean dago eta arazoak sortu dira azkenaldian, harri zatitak lurrera erortzen direlako, horrek dakarren arriskuarekin. Honek, egoera txarrean dagoen tokietan harria moztu edo kendu egingo da eta falta den tokietan berria jarri. Arazoa andamioak jartzea izango da, 50 bat metroko andamioak jarri beharko dira eta.

Iazko uztailan Koruko Aizarna Kultura Diputatua Santa Marina parrokia eta Elixamendi, Santa Katalina, San Juan eta San Matei ermitak ikusten izan zen. Guztiak egoera kaskarrean daude eta konpontzea eskatzen dute. Santa Marinako kanpandorrea berrizteko dirulaguntza zehaztu da, baina ez, ordea, ermitak konpontzeko.

Erretaula berrizteko dirulaguntza ere eskatu da. Santa Marinako erretaula barroko garaiko onenetakoa omen da. Antza denez, parasitoek eragindako zuloak ditu egurrezko erretaulak eta lehenbailehen konpondu beharra dago. Erretaula fumigatu egin beharko da parasitoak desagertarazteko. Obren aurrekontua 2 milioi pezetakoa da.



# ETXEPARE-BILINTX

## LIBURUDENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



# la hilabete huelgan Tavesa eta Algodonerako langileak

28 egun huelgan bete dituzte gaur Algodonerako eta Tavesako langileek. Asteazkenera zehar piketeak eta hainbat protesta ekitaldi antolatuta dituzte. Asteazkenean, bestalde, ehundaka lagunek hartu zuen parte huelga konbokatutako lau sindikatuak deitutako manifestazioan. Aurretik prentsurrekoa eman zuten sindikatuak ordezkariek.

Prensurrekoan adierazi zutenenez %8ko igoera -%4 finkatutako nominetan eta beste %4 finkatu gabekoetan- eta urtean 9 ordu gutxiago lan egitea dira langileen aldarrikapen nagusiak. *“Une honetan, biabilitate plana alde batera laga eta konbenioa sinatzea da gure helburu nagusia. 95ean IPCa gehi bi puntu negoziatzen hasi ginen, baina biru urte hauetan ez dugu soldata igoerarik izan eta eros abalmenean %12,3 galdu dugu. Zuzendaritzaren seriotasun falta-*

*rekin aspertuta gaude”* esan zuten.

Prensurrekoan azaldu bezala, zuzendaritzaren eta langileen ordezkarien arteko lehen kontaktuak izan dira, baina bi aldeen posturak urrun daude oraindik. Zuzendaritza eta langileen arteko bitartekaritzara joateko, zuzendaritzak %2,5eko igoera finkoa eta 4,5ekoa finkatu gabeko nominetan eskainiko duela uste dute langileek eta ez daude inondik inora hori onartzeko prest.

Sindikatuak ordezkariek enpresako zuzendaritzak iritzi publiko nahastu eta intoxikatzen egindako saiakerak salatu zituzten eta langileen artean inoiz baino batasun haundiagoa dagoela azpimarratu zuten. Era berean, huelgan dauden 240 langileek konbenio on bat lortu arte borrokan jarraitu eta protesta ekintzak gogortzeko prest daudela adierazi zuten.



Asteazkeneko manifestazioan ehundaka herritarrek hartu zuten parte. Santiago Bengoa, CCOOko idazkari nagusia ere manifestazioan izan zen.

## Barrenkalekoen bazkaria

Barrenkalean bizi, jaio edota bizi izandako 170 bat lagun elkartzeko dira domekan, herri bazkarian.

12:00etan meza izango da Sierbetan eta, ondoren, txikiteoa Barrenkalean. 14:00etan, berriz, bazkaria San Martin plazan eta bazkalostean Iosu eta Iokin trikitilariak alaitutako erromeria.

## Gurusoentzako zinea

Datorren martitzenean 18:30etan, Novedades aretoan “Africa” pelikula eskainiko da ertainetako 2. eta 3. mailan dabiltzan gazteen gurusoentzako. Udaleko Gizarte Ongizate sailak antolatzen duen drogomenpekotasunen prebentzioa lantzeko programaren azken saioa izango da.

## Zezenzaleak-en irteera

Zezenzaleak taldeak Biasterira txangoa antolatu du apirilaren 26an Santamaria anaien Los Molinos ganadutegia bisitatzen. Goizeko 8:30etan izango da irteera Frontoian; 10:00etan, Heredad Ugarte bodegetara bisita egingo da eta ondoren, hamaiketakoa.

13:00etan, ganadu azterketa egingo dute, eta 14:30etan bazkaria. Bazkalostean, txekorrak txuliatzeko aukera izango da.

Interesa dutenek Ganbara kafetegian eman behar dute izena apirilaren 22a baino lehen.

## Dantza txapelketa

Moises Azpiazu dantza taldeak, Udalaren laguntzarekin, Pazkuetan antolatuko duen Euskadiko Dantza Askatu Txapelketan parte hartzeko izena emateko epea maiatzaren 6an zabalduko da Kultur Zerbitzuan.



# LASAGABASTER

## ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

## Jose Luis Elkororen aldeko ongi etorri ekitaldia antolatuta zegoen atzorako

Jose Luis Elkororen eta gartzelaren beste 21 Mahai Nazionalen kideak, aske geratu ziren asteazkenean, epaileak jarritako fidantzak ordaindu ondoren. HBk 500 mila pezetako fidantza ordaindu du gartzelan 2 hilabete inguru eman dituzten 18 mahaikide bakoitzeko, eta beste bost milioi, joan zen ostiralean atxilotu zituzten lau mahaikideko, tartean Jose Luis Elkororen fidantza ordaintzeko. Guztira, 29 milioi pezeta ordaindu ditu Herri Batasunak mahaikideak aske lagatzeko.

Jose Luis Elkorok joan zen otsailaren 12an alde egin zuen Bergararik eta joan zen ostiralean hegoaldera pasatu zenean atxilotu zuten arte, Europan zehar ibili da Karmelo Landa, Joseba Alvarez

eta Mati Iturralderekin batera, Alternatiba Demokratikoa hainbat forotan zabaltzen. Carabanchelgo espetxean bost egun eman ondoren, asteazkenean aske geratu zen.

Erbesteratuta egon den bitartean, Bergaran hainbat manifestazio egin dira -tartean argazkian ikus dezakezuen Erramu Zapatuko mahaikideen egoera salatzeko; ostegun iluntzerako, ongi etorria emateko ekitaldia antolatuta zegoen San Martin plazan.




## Udal aurrekontuak astelehenean onartuko dira

Astelehenean egingo da aurtengo udal aurrekontuak onartzeko plenoa. 2.170 milioi pezetako aurrekontua aurreikusi du Udalak 1997rako. Horietatik 1.875 Udalekoak dira eta gainontzekoak Mizpirualde zaharren egoitza eta Udal Euskaltegikoak. Iazko aurrekontuarekiko, %6ko igoera izango du aurten. Gastuari eustea da gobernu taldearen helburu nagusia, horregatik zorpena jsiteko ahaleginak egin dira eta une honetan %18,9koa da Udalaren zorpena. Udal gobernu osatzen duten EAJ, EA eta PSE-EE alderdiak adostu dute aurrekontua, beraz, ez da arazorik izango onartzeko.

## Gorlako kantina

Datorren astelehenean adjudikatuko da Gorlako kantina. Udalaren asmoa kantina ekipatu eta lehenbailehen zabaltzea da.



**P. MANSO OPTIKA**  
Irizar Pasealekua, 2 Tlf. 76 27 86

[Eraman itzazu agerian  
baina prezioa ezkutuan dutela]

**9.700 PTA**



■ Eta 97ko gainontzeko modelook

**PREZIO BEREZIAN**



# Denok batera presoak Euskal Herrira



Erizaina

EDURNE ALTUBE



Ikaslea

NEREA ARANA



Langilea

MARKOS GABILONDO



Langilea

J.A. LARRAÑAGA



Jubilatua

FERNANDO LASA



Tabernaria

A. MURUAMENDIARAZ

Beste hauek ere  
euren atxikimendua  
adierazi dute:

**GARBIÑE ALBIZU**  
**ANDONI ARRILLAGA**  
**SORKUNDE GARAI**  
**J.M. ITURROSPE**  
**TXEMA JAUREGI**  
**J.M. LETURIA**  
**IÑAKI MUJIKA**  
**GEMA ORBEGOZO**  
**M. ISABEL OREGI**  
**IASONE ZUMELAGA**

**Goian sinatu dugunok geure egiten dugu ondorengo eskaera:**

1. Nahi duten euskal preso guztiak, berehala Euskal Herrira ekarriak izan daitezela.
2. Gizaki orori bezalaxe, dagozkien oinarrizko eskubideen aplikazio integrala esijitzen dugu: gaiso sendaezinak eta kondenaren 3/4 bete dutenak kalera atera.

**Zuk ere, nahi baduzu,  
adierazi zure atxikimendua.  
Apirilean zehar, larunbat goizetan,  
sinadurak biltzen egongo gara plazan.**



# Maitte Aristegi

## Baserritarren gidari

**EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak joan zen eguakitzean Gasteizen egin zuen kongresoan, sindikatu-ko Idazkari Nagusi izendatu zuen Maitte Aristegi bergararra. Hainbat urtetan EHNEen abokatu lanak bete ondoren, orain Aristegi 6.500 afiliatu biltzen dituen elkarte honen bozerama-lea izango da. Baserritarren ilusioa berreskuratu nahi du Aristegik, betiko baserri mota aldarrikatuz.**

**- Idazkari Nagusiarena postu berria omen da EHNEen. Zein izango da zure zeregina?**

- Lehen ere gure estatutuetan bazegoen figura hori eta hirugarren kongresu honetarako martxan jartzea beharrezkoa zela ikusi zen. Azken batean, beste sindikatuetan gertatzen den moduan, jendeak erreferentzia bat izateko da eta ordezkari lanak egingo ditut bati-pat. EHNEren barruan lurralde bakoitzeko presidente bat dago eta beraz konfederazio mailako erabakietan ni izango naiz ordezkaria, nolabait esateko lau herrialdeetako erabakiak lotzeko edo koordinatzeko lana egingo dut.

**- Nola izan da aukeraketa prozesua?**

- Lau herrialdeetan izenak proposatzeko prozesu bat zabaldu zen eta norbaitek nire izena



eman zuen; egia esan sorpresaz harrapatu nau izendatzeak. Ez zen beste hautagairik aurkeztu eta

botazioan aho batez onartu zen nire kandidatura. Lau urtez izango naiz EHNEko Idazkari Nagusia.

**- Eta zeintzuk izan ziren hirugarren kongresuko ondorio nagusiak?**

**“Baserri mundua etsipen batean sartuta dago eta lanean jarraitzeko ilusioa berreskuratu behar dugu”**

- Baserri mundua etsipen batean sartuta dagoela ikusi da eta baserrian lanean jarraitzeko ilusioa berreskuratu beharra dago, gazte eta emakumeei dei bat zabaldu behar zaie baserri mundu hori ez galtzeko, oso momentu larrian gaude eta. Urtero, lau herrialdeetan, 1.000 lanpostu inguru galtzen dira, jubilatzen direnek ez dutelako errelaborik. Gaur egungo egoera nahiko gogorra da errekonberzio gogor bat ematen ari delako. Eta jendeak ikusi behar du sindikatua gure eskakizunak bideratzeko tresna egokia izan daitekeela.

Bestalde, gizarteari begira, baserri mundua sektore estratejiko delako zabaldu behar dugu. Arrantzarekin batera, nekazaritza lehen sektorea izan da beti eta horri eusteko ahaleginak egin behar ditugu, azken batean luraren %90a geuk jestionatzen dugu eta. Ingurugiroarekiko berebiziko garrantzia dauka nekazaritzak eta gainera, baserri munduan, kultura bat, ohitura batzuk mantentzen dira eta hori ere baloratu beharra dago. Kalitatezko elikagaiak produzitzen ditugu hemen eta kanpokoan prezioekin konpetitu behar izaten dugu. Diruari gehiegi begiratzen dio jendeak, gure osasunari begiratu beharrean. Gure produktuek atzetik duten lana

eta eskeintzen duten kalitateaz ez da apreziatzen askotan.

**- Nora bideratu behar da baserriaren produktioa? Produktioaren dibertsifikazioa aipatu duzu behin baino gehiagotan...**

- Nekazaritza politika sustarretik aldatu beharra dago. Europar produktioa bultzatzen ari da eta horrek eragin garbia dau-

ka: baserri gutxitan produzitzen da gehiena eta besteetan, berriz, ia ezer ez. Bi belozidade horiek nabariak dira eta hemen ere tendentzia hortara doa. Beraz, nekazaritza produktibora jo behar dugu eta ez nekazaritza produktibista horretara. Nekazaritza produktibista horrekin baserriak fabrika modukoak bihurtzen dira eta hemen beti egon den

baserri mota aldarrikatu behar dugu: janari osasuntsuak produzituz, ingurugiroa ziurtatuz, lanpostuak mantenduz eta baserritarrei diru-sarrerara duin batzuk eskeinuz. Eta produktuak saltzeko orduan bezeroarekin dau den zirkuitu motzak mantendu behar ditugu, jendeak jakiteko non produzitutako produktuak diren, zein baldintzatan eta

**“Errekonberzio gogorra ematen ari da eta sindikatua gure eskakizunak bideratzeko tresna egokia izan daiteke”**



EHNen egiten duen lana Lamaño Etxeberri baserrikoarekin tartekatzen du Maitek.

**iRUDI**  
**Erlojudenda**  
**Bitxitegia**  
 Ibargarai, 2  
 ☎ 76 51 65

ARTISAUTZAKO IZOZKIA  
**GOXO-TOKI**  
 D. Iraila, 3 - Tf. 761235  
 Mabilategi, 34 - Tf. 762337  
 BERGARA

**Gallastegi**  
*Jostundegia*  
 Mahoizko lanerako jantziak  
 San Pedro ☎ 76 10 85

bar. Salmenta zuzena oso garrantzizkoa da, azken batean konfiantzan oinarritutako salmenta delako.

**- Label produktuei buruz nolako balorazioa egingo zenuke?**

- Bultzatu beharreko politika da hori, azkenean erosleei hemengo produktuen kalitate garantia eskeintzen zaielako. Baina laguntza gehiago behar dira eta hobetzeko pauso batzuk eman behar dira oraindik: sektorearekin harreman gehiago izan, baserritarrengana informazio gehiago zabaldu, publizitatea gehitu..., baserritarrek ikus dezaten merezi duela eta prezioetan ere igartzen dela. Gehiago sakondu behar da horretan.

**- Zein iritzi daukatzue Jaurlaritzaren Plan Estrategikoari buruz?**

- Bertako nekazaritza 2.001 urtera arte zuzenduko duen plangintza hori lantzen hartu dugu parte eta gure ideia asko sartu ditugu hor. Baina puntu asko zehaztu eta landu beharrekoak dira oraindik. Parlamentuan eztabaidan dago Plan Estrategikoa eta alderdi politiko guztiekin egon behar gara, guk bultzatu nahi dugun nekazaritza mota hori defenditzeko, baserri mundua bizirik mantentzeko azken batean.

Guri dagozkigun erabakiak gero eta urrunagotik hartzen dira, Europa mailan, mundu mailan eta harremanetan gaude Estatu mailako Coag eta mundu mailako Via campesina elkarteekin. Eta etsipena nabaria da alde guztietan. Problematika oso antzerakoa daukagu guztiok.

**- Lurraren prezioa da zuen kezketako bat.**



**Industria nekazal eremuetakoa lurra hartzen ari da eta baserri eremuak gutxitzen. Zer egin daiteke?**

- Lurraren aldarrikapena egin behar dugu. Alde batetik lur gutxi daukagu eta bestetik egiten diren obrak baserri lurrean egiten dira. Ez da ikusten lur horrek berriz produzitzeko duen balioa eta lehen-tasuna beti ere beste interes batzuei ematen zaie. Saltzeko aukera daukanak saldu egiten du eta espekulazioa ematen da. Lurra erosi nahi duten gazteek ez dute hortarako aukerarik eta horrela oso

nekeza da aurrera egitea. Lur hori landu nahi duenari oso garestia gertatzen zaio. Lurra da gure oinarria eta balore hori eman behar zaio. Lurra lortzeko laguntzak behar dira eta erdi-abandonatuta dauden lurrei aktibitatea topatu behar zaie.

**- Badago baserritar gazterik?**

- Baserrietan dagoen lana ikusi eta gazteek ihes egiten dute. Ez dute ikusten lanerako aukera bat dagoela baserrietan eta askotan ulergarria da, lan baldintzak eta ordainketak asko hobetu behar direlako. Gainera heren-

tzia edo transmisioaren arazoa hor dago; herentzia ez argitzeak inseguritatea sortzen du gazteengan, azken batean ez dakitelako zeinendako ari diren lanean. Herentzia kontua tabu bat da oraindik eta horren gainean berba egin beharra dago baserrian lanean geratzen denari baserriaren transmisioa egiteko. Gaur egun etxeko gazteren bat baserrian lanean gelditzen denean ez da transmisiorik egiten edo oso berandu egiten da eta hori aurreratzea nahiko genuke. Askok arazo horrengatik lagutzen dute baserria.

**- Emakume Baserri-tarren Elkarteko kidea ere bazara. Nolako da emakume baserritarren egoera?**

- Emakumeen artean aktibitate sindikala bultzatzea komeni da. EHNEko afiliatuen artean %15a emakumeak dira eta sindikatutik emakume baserritarrek baserriaren titularrak izatea bultzatzen ari gara. Berez nahiko eskasa da baserritarren aseguru soziala eta horrez gain emakume pilo bat dago afiliatu gabe. Emakume horiei alternatibak eman behar zaizkie eta eurentzat zuzendutako programazio bat jarri nahi dugu martxan, orain dakitena hobeto egiteko eta, bide batez, gauza berriak ikasteko. Ikastaroak antolatuz, elkarrekin harremanetan jartzen ditugu eta hori eurentzat oso inportantea da, elkarren berri izan eta esperientziak elkartrukatzeko. Bestalde, oso emakume gutxi

**“Lurra da gure oinarria eta balore hori eman behar zaio. Lurra lortzeko laguntzak behar dira eta lurrei aktibitatea topatu behar zaie”**



dago baserriaren titularra dena eta zera eskatzen dugu: emakumea bada baserria eramaten duena, bera izatea titularra eta gizon batekin ari denean, kotitularra bera izatea.

**- Eta esaiguzu, bada, nolakoa da gaur egun Bergarako nekazal egoera?**

- Bertatik bizi direnak oso gutxi dira, baserri mixtoak dira gehienak, hau da, gizonak industrian egiten du lan eta emakumea, berriz, baserriaz arduratzen da. Ez dugu formula hori gaizki ikusten baina gehienetan horrek baserriko lana alde batera lagatzera jotzen du eta baserriak etxebizitza soil bihurtzen dira. Eta ikusten ari da, auzoetako baserriak saltzera jotzen da eta horrek alda-

ketak ekartzen ditu, lurra zaindu eta mantentzeko kontua arriskuan jarriz. Alde horretatik Bergarako nekazaritza Euskal Herrikoaren antzera dago.

**- Bukatzeko, EHNE duzun zeregin berri honekin, Udaletxean jarraituko duzu lanean?**

- Ez, lan berri hau inkompatiblea da inongo kargu politikorekin, EHNE barruan iritzi ezberdinetako jendea dagoelako. Nekazaritza-politikaren alde egiten dugu lan eta guztien ordezkari izango naizenez, ezin naiz partidu politiko bakar batekin lotuta egon. Zinegotzi postua uzteko prozesua martxan dagoeta laister emango dugu jakitera nire ordezkoa zein izango den.

## EHNEEn diharduten bergararrak



### BALENTIN GABILONDO

Balentin Gabilondo elusuarra (33 urte) Gipuzkoako EHNEko eta Mendi Nekazaritza Elkarteko presidentea dugu. Dagoeneko 5 urte daramatza Gipuzkoako EHNEko zuzendaritzan liberatuta. Baserriko lana eta sindikatukoa tartekatzen ditu.

### AINHOA LARRAÑAGA

EBEL Euskal Baserriar Emakumeen Elkarteko lan batzuk egin ondoren, orain pare bat aste EHNEEn abokatu lanak betetzen hasi zen Ainhoa Larrañaga 23 urteko angiozartarra. Bergaran eta Tolosako EHNEko bulegoetan, batipat EHNEko afiliatuei zerbitzua eskeintzen die.



### MAIDER LARRAÑAGA

Lau herrialdeetako EHNEko Konfederazioak Gasteizen duen bulegoan administrari lanak egiten ditu Maider Larrañaga 23 urteko gazteak. Datorren uztailan lau urte beteko ditu Gasteizen lanean.


### ALEX AZKARATE

Berrigarren lau urtetan publizista lanak bete ondoren, Konfederazioak argitaratzen duen "Ardatza" aldizkarian maketatzailerik eta publizista lanetan ari da Alex Azkarate (28 urte) pasa den urtariletik.

Hamabostean behin argitaratzen da "Ardatza", 17.000 aleko tiradarekin.

### AMAIA eta SABIN ZABALETA

Sabin (39 urte) eta Amaia Zabaleta (35, argazkian) anai-arrebak EHNEko abokatu-kolaboratzaileak ditugu orain dela urte batzutatik hona. Amaiak Bergarako bulegoan egiten du lan eta Sabin, berriz, Azpeitian ari da lanean. Sindikatuarekin mantentzen duten kolaborazio dela eta, kontsultak eta epaitegiko lanak egiten dituzte.



### ESTHER FRAILE

Valladolidetako izatez baina Bergaran bizi dena. 34 urte. Gipuzkoa eta Bizkaiko EHNEekin kolaborazio lanak egin ohi ditu. Esther nekazal peritoa da eta EHNEtik, kortatarako nabeen proiektuak lantzea agintzen diote. Ia lau urte dira EHNEekin lanean hasi zela.



# Udaberriarekin, zertan aldatzen dira zure ohiturak, zure bizimodua?



**Maria Jose Sanchez**

Eguzkitaz gozatzea asko gustatzen zait eta gehiago irtetzen naiz kalera, alaitsuago. Hobeto bizitzen da udaberrian. Dietari dagokionez, entsalada gehiago jaten dut.




**Izaskun Lazpiur**

Eguzkia hartzea asko gustatzen zait eta gehiago irtetzen naiz kalera pasiatzera. Asko gustatzen zait udaberria, uda baino gehiago. Dietarekin berdin jarraitzen dut.




**Jesus Mari Zabaleta**

Berdintsu jarraitzen dut; igual mendira gehiagotan joaten naiz baina bestela antzera... Gustatzen zait bai udaberria baina normal jarraitzen dut.



**Asier Aranzadi**

Aktiboago egoten naiz beharbada, gauza gehiago egiten ditut: kirol gehiago, kaleratu astebarruan eta astebukaeretan... Baina berdintsu jarraitzen dut.



**Jabier Azkarate**

Argi dago eguraldi onarekin gehiago irtetzen dela jendea, gustua ematen du irtetzeak. Udaberria asko gustatzen zait, eguraldi onarekin behintzat.




**Ane Miren Zabala**

Alaiago egoten naiz. Zergatik? Ez dakit, lorak eta asko gustatzen zaizkit... Mendira gehiago joaten naiz, urtarorik onena da udaberria.

**ANTIA**  
**HARATEGIA URDAITEGIA**  
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*  
**Matxiategi ☎ 76 15 09**

**CAMINO MUGERZA**  
*Erakusketa*



**NAHIKARI taberna**  
 Masterreka, 20 Tf. 76 57 71

**PANA DE ROKUA**  
**ZATE TXEAL**  
 Kontxi Idigoras  
*Asteburuetan bertako babak eta sabieskia*  
 SALBADOR, 10 ELGETA Tlf. 76 82 73



**DEBA GARAIA**  
**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**  
 Arrasate / Bergara / Elgoibar  
**T. Aranzadi, 2 beheka ☎ 76 21 80-76 06 37**

**Deco-Textil**  
**ZANGITU**  
 Etxerako lentzeria  
 Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
 Bisiloak, tapizak, etab.  
 Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69





## Athletic zalea

Beharbada esan duguna gogorregia izan liteke. Beharbada, ziur gaude zaletu horien artean euskaltzale jatorrik ere izango direla. Beharbada, gutxiengo batzuen kontua da baina guk gaur ikusi dugunaren arabera, gordintasun osoan plazaratzera gatzokizue.

Athletic-ek Anoetan jokatu zuen Sevillaren aurka. Gu geu, gutxitan bada ere, Reala ikustera joanak gara. Oraingoan, parean tokatu zitzaigunez Athletic-en jokoaz gozatzeko asmotan hurbildu ginen Anoeta futbol zelaira.


Hara zer ikusi genuen. Anoeta inguruan sekulako jendetza. Txuri-gorriak, gazteak, edadekoak, haurrak; emakumezkoak eta gizonetzkoak. Bilbo haunditik eta herrietatik ere asko batu zen.

Donostia txuri-gorritz jantzi zen. Hainbeste bizkaitar Donostian ikustea oso zaila da. Alde hortatik bapo. Edarto. Ejenplu bikaina. Jarraitzale finak baditu Athletic-ek.

Baina, esan beharra dago baita ere, Donostian egun eta toki batean hainbeste castellano batera ez zela bilduko inoiz. Definitu dezagun ikusitakoa. Gauza serioa da. Euskararik ez zen entzuten. Bakarren bat noizbehinka. Benetan lotsagarria, penagarria. Une batez "Gora Euskadi" oihua ere entzun genuen. Baina ondoren erdaraz. Horiek dira gure abertzaleak!

Donostiara hurbildu ziren Athletic zaleak ez dute euskara bihotzean, eta gutxiago ezpainetan. Han zeuden guztiak ez dira horrelakoak izango baina asko bai, gehiengoa zoritzarrez. Hori da tristea. Dauden arlote guztiak hegaraz egingo balute, eguna gau bihurtuko litzateke.

**Andres OSA SAKONA**



## Lanaren banaketa

Donostia ei da Euskal Herriko hiri "chic" eta dotoreena. Marginalitatek ez omen dago han, eta soineko eleganteak dira nagusi Kontxako pasealekuan. Nik, oster, egunerok ikusten ditut bere ahots tristez sos batzuk lortzen ahalegintzeri den jeteroa, Donostiako egutegi topikoak "boluntadeagatik" banatzen dituen gaztea, eta Caja Laboraleko izkinan lo egiten duen eskalea. Bai, dotorea eta "chic", baina pobrez gainezka.

Egunotan Euskal Herrian martxan dagoen kanpaina batek lortu du ni ere horretaz jabetzea. Hainbat sindikatuk, auzo elkartek, Gobernuz Kanpoko Erakundek, mugimendu kristauk eta giza mugimenduk bultzatuta, langabezia eta pobreziaaren aurkako sinadura bilteta hasi da Euskal Autonomi Elkartearen. 30.000 sinadura biltzea, eta horiekin legebiltzarrean lege proposamen bat aurkeztea dira kanpaina horren helburuak. Pobreziaaren eta langabeziaaren kontra egotea erraza da, baina nekezagoa egingo zait gure agintariei arazo horri irtenbide bat ematea. Azken finean, gure gizartean bizi dugun kapitalismo basatiaren ondorioa baino ez da egoera, sistema honek argi uzten baitu aberatsak egoteko pobreak ere egon behar dutela.

Langabezia eta pobrezia desagertarazteko lanaren banaketa ezinbestekoa da, eta horretarako lege proposamenak neurri batzuk zehazten ditu: ordu extrak desagertzea, pluriemplegua desagertzea, lan astea murriztea eta abar. Bestalde, langabetuek ere duintasunez bizitzeko aukera izan behar dute, hori herritar guztien eskubidea da eta. Horretarako, gutxienezko errenta jaso behar dute ezinbestez. Azken finean, gizarte honetan hain finkatuta dagoen lema kapitalista eta yankiari buelta eman behar diogu: "Ez du lan egiten nahi duenak, baizik eta ahal duenak". 30.000 sinadura dira bakarrik.

**Mikel LIZARRALDE**

# ONENA

## TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

# Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behe  
☎ 76 59 54 BERGARA

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

*Larrañaga*

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051.

R.S.I. 209374 - SS

**BERGARA**

## ileapaindegia

eder gela

## disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

**Biko**

BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behe ezkerre. Tf. 76 71 19

■ **Igeri elkarteko en bazkaria**

Bere sorreraren 25. urteurrenaren inguruan antolatutako ospakizunen barruan, zapatuan Bergara **Igeri Elkartearekin** zerikusia izan dutenen herri bazkaria izan zen **Jam aretoan**. Guztira, **105 lagun** izan ziren bertan bazkaltzen. Lagunartean bazkaldu ondoren, hogeitabost urte hauetako



kontuak eta anekdotak gogoratzeko aukera izango zuten. Igerilari ohiak, zuzendaritzan aritutakoak, kolaboratzaileak..., lagun kuadrila ederra bildu zen zapatuan. Astelehenean, berriz, Igeri Elkarteak argitaratutako aldizkaria aurkeztu zen Kultur Etxean eta, era berean, elkartearen historia errepasatzen duen argazki erakusketa zabaldu zen. Argazki erakusketa domekara arte izango da zabalik, 12etatik ordubietara eta 6tatik 8etara.

■ **Ez aurrera, ez atzera**

Argazkian agertzen den **kamioia trabatuta** geratu zen eguakitz eguerdian, hiru orduz, **Gasparreneko bidegurutzean**, Barrenkalean. Horrelako kamioiek debekatuta daukate herri barrura sartzea baina



garraiolaria despistatu eta konturatu orduko berandu

zen; 13 metro

luzeko kamioia izanik, maniobra ezinezko bat egin nahi izan zuen eta ez aurrera ez atzera egin ezinik geratu zen. Kotxe ilada luzeak sortu ziren Barrenkale inguruan eta arratsaldeko hiru terdietan kamioia bertatik atera arte trafikoa moztu behar izan zen.



**ETXAGI**  
**JATETXEA**  
 AFARIAK, BATAIOAK,  
 JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
 MENUA, GOSARIAK,  
 BAZKARIAK...  
 Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

**Garnish**  
**Bitxitegia**  
 San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

**GORBEA**  
**Miguel Gimbert Hernan**  
**AROTZEGIA / EBANISTERIA**  
 Zokalo, ate, tarima eta armairuen  
 kolokazioa eta  
 era guztietako arotzeria-lanak  
 Orain ARETXABALETAN,  
 Basabe Polig. A-2-5 TI/F 79 15 71




afari ederra egin eta giro ezinhobeaz disfrutatu zuten. Maiatzean bukatuko da aurtengo ikastaroa eta sagardotegien denboraldia amaitu baino lehen elkarrekin afari bat egin nahi izan dute emakumeek. Eguakitzean primeran pasatu zuten, ziur kurtsoa amaitzean beste afaritxo bat egingo dutela. Bien bitartean klaseekin jarraitu behar...

■ **Eskulanetakoak sagardotegian**

Jarduneko eskulan ikastaroan parte hartzen ari den emakume taldeak sagardotegira irteera egin zuen joan zen eguakitzean. Guztira **18 lagun** abiatu ziren autobusez **Ataungo Urbitarte sagardotegira**; bertan

**Zertan dihardute ba?**



**Fernando Etxeberria** Bergarako Urrutiko Hezkuntza Unibertsitateko (UNED) idazkari izendatu dute. Ezkurran jaioa, urte dexente Bergaran eman ditu lanean:

Seminarioko lehengo San Jose Obrero Ikastetxe Teknikoan zuzendari lanak bete ondoren, Aranzadi Ikastolako lehengo zuzendaria izan zen 1971tik aurrera. Gaur egun, Bergarako UNEDeko irakaslea da, besteak beste, Hezkuntza Teoria eta Filosofia ikasgaiak ematen dituelarik. Aurreko urteetan Eskoriatzako Irakasle Eskolan eta Gasteizko IVEFen ere idazkari lanak egin ditu.

■ **Ikastaroak jubilatuetan**

Jubilatueta antolatzen diren ikastaroen artean azken hiruhilabetekoa martxan da dagoeneko.

**Jose Luis Armendiak**



astelehen eta eguasten goizetan ematen duen yoga ikastaroan 14 laguneko taldea osatu da; eskulan ikastaroan (astelehen arratsalde) 15 lagun ari dira **Ines Elorza** irakaslearen esanetara; pintura kutsilloan, eguakitze arratsaldetan, 10 lagun daude eta, azkenik, **Don Nikomedes** Larrañagak zuzentzen duen Jubilatuetako kororako 59 lagunek eman dute izena. Kororako izan ezik, gainontzeko ikastaroetarako 2.400 pezetako kuota ordaindu behar da azken hiruhilabetekoagatik. Argazkian, pinturako taldea **Jose Antonio Laskurain** irakaslearekin. Erakusketaren zai gelditzen gara...

**igok eta Txomin**

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA  
☎ 76 60 39

BERGARA  
☎ 76 19 98

**ZUBIETA**  
elektragarintza

**MOTORREN BOBINAKETA**  
**ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

**Kruz Gallastegi, 2 behe**  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua**  
**konpromezu barik**



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

# Mari Jose Agirregabiria

**Hogeitazazpi urteko eibartar honek urte t' erdi darama gizarte laguntzaile Jubilatuen egoitzan. Zaharrak lagun, aktibitateen antolakuntzan laguntzen dio juntari eta, horrez gain, Diputazioko beste hainbat programaren ardura darama.**

**- Zer da jubilatuei gehien gustatzen zaiena?**

- Irteerak, festak, alaitasuna azken batean.

**- Eta gutxien?**

- Ikastaroetarako animatzea kostu egiten da batzuetan.

**- Eta zerekin kezkatzen dira?**

- Etorkizunak edo bakardadeak nahiko kezkatzen ditu.

**- Zein funtzio bete beharko lukete gaurko gizarte?**

- Funtzio aktiboagoak, protagonismoa eman behar zaie.

**- Zenbat urterekin jubilatut beharko litzateke jendea?**

- Lanaren arabera ikusiko beharko litzateke.

**- Zuk zeuk jubilazio planik egin duzu?**

- Ez.

**- Zein koloretakoa ikusten duzu etorkizuna?**

- Berdea.

**- Baikorra ala ezkorra zara?**



*“Jubilatuek irteerak, festak, alaitasuna dute gustoko. Gizarte funtzio aktiboagoa izan beharko lukete, protagonismoa eman behar zaie Baikorra izaten saiatzen naiz”*

- Baikorra izaten saiatzen naiz.

**- Asteko egun bat?**

- Ostirala.

**- Lanetik irteerakoan zer egiteko ohitura daukazu?**

- Eibarrera joan eta kalean buelta bat eman.

**- Udaberrian zure ohiturak aldatzen dira?**

- Bai, eguraldia eta eguna luzeagoa dela aprobetxatuz irteera gehiago egiten ditugu, mendira adibidez.

**- Kirolak egiten duzu?**

- Oso gutxi.

**- Jantzi bat?**

- Prakak.

**- Perfumerik erabiltzen duzu?**

- Kolonia fresko batzuk noizean behin.

**- Zenbat ordu egiten duzu lo?**

- Zortzi bat.

**- Jeikitzerakoan egiten duzun lehen gauza?**

- Irratia piztu.

**- Zer gosaltzen duzu?**

- Cola-Cao bat.

**- Zer da besteengan gehien apreziatzen duzuna?**

- Leialtasuna, alaitasuna, umiltasuna..., gauza asko.

**- Zure bertute eta defektu bat?**

- Responsablea naizela uste dut eta defektua, oso urduria naizela.

**- Nora egingo zenuke bidaia bat?**

- Eguzkia dagoen irla paradisiako hortariko batera.


**- Eibar lehen mailara igoko da?**

- Baietz uste dut.

## LARREA

### TABERNA

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA



Irizar, 2  
☎ 76 14 95

## JAUJA KIROLAK

## EDEL

### TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik  
haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltxak,  
edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik  
egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

## SUBIJATI

### Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

## IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2  
behea.  
☎ 76 58 83

**Santiveri**

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

**ETXEBIZITZA**

**Antzuolan** pisua eta gara-  
jea salgai. ☎ 76 62 15.

**Berrizteko** dauden bi  
duplex salgai Bidekurutze-  
tan. ☎ 76 57 36.

**Garajea** salgai Bolun.  
☎ 76 54 98.

**Garajea** salgai edo alokai-  
ruan Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

**Pisua** salgai Donostian,  
Amaran. ☎ 76 31 79.

**Gela** bat konpartituko nu-  
ke. ☎ 76 91 33 (Iraide).

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 18 46.

**Pisua** alokairuan hartuko  
nuke. ☎ 76 57 55.

**Pisu** amueblatua salgai  
Mugertza kalean, 3. zenba-  
kian. ☎ 76 53 79.

**Pisua** alokairuan Santo  
Domingo de la Calzadan,  
udan. ☎ 76 13 12.

**Pisua** salgai herri-erdian.  
☎ 76 25 31.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 42 65 (gauetz).

**Pisua** salgai Barrenkalen.  
☎ 76 41 38.

**Garajea** alokatzen da  
Ibargarain. ☎ 76 16 38.

**Garajeak** salgai Torrekuan  
eta Espaloian. ☎ 76 33 88.

**Pisua** salgai Zarautzen.  
☎ 76 53 69/13 34 67.

**DENETARIK**

**Imar** karro-denda salgai.  
☎ 76 59 56 (gauetz).

**Seat Toledo** kotxea (SS-  
AL) salgai. ☎ 76 43 37.

**Bilbon** pisua osatzeko bi  
lagun behar dira.  
☎ (94) 416 77 77 (Eli).

**Gasteizera** egunero ko-  
txez joateko jendea behar  
da. ☎ 17 34 03 (Ana).

**Canon** argazki kamarako  
hiru objetibo eta bi gorputz  
salgai. ☎ 76 39 96.

**Mendi** bizikletako John  
Luyck zapatilak salgai. 38  
zenbakia. ☎ 76 31 34.

**Fagor** berogailua (20 litro)  
eta Sony bideo kamara  
salgai. ☎ 76 24 02.

**Derby FDS** motorra sal-  
gai. ☎ 76 49 30 (Igor).

**Lada Niva** kotxea salgai.  
Egoera onean. ☎ 76 02 31.

**Graduatutako** betaurre-  
koak galdu ditut. ☎ 76 16 38.

**Txirrindulari** bizikleta sal-  
gai. ☎ 76 50 22 (Karlos).

**Akuariuma** salgai. Egoe-  
ra onean. ☎ 76 33 48.

**Renault 5** kotxea (SS-O)  
salgai. ☎ 76 10 91 (gauetz).

**Renault 11** kotxea (SS-  
AC) eta Vespa 200 (VI-I)  
motorra salgai. ☎ 76 08 51.

**Mendiko** bizikleta (nes-  
kena) salgai. ☎ 76 46 90.

**LANA**

**Mate**, fisika eta kimika kla-  
seak. ☎ 76 70 40.

**Ingeles** klaseak ematen  
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Lanak** ordenadorez pasa-  
tzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Klinika** auxiliar batek gai-  
soak edo helduak zainduko  
litzuke. ☎ 76 64 47.

**Mate**, fisika eta kimika  
klaseak. ☎ 76 44 34.

**Etxeko** lanak egiteko nes-  
ka behar da. ☎ 76 91 30.

**OHO** eta BBBko klaseak  
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**OHO** klaseak ematen di-  
tut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika  
klaseak. ☎ 76 24 31.

**Zaharrak** zaindu edo  
etxeko lanak egingo nituz-  
ke orduka. ☎ 76 04 57.

**Batxilergo** teknologikoko  
(lehen maila) elektronikara ir-  
kaslea behar da. ☎ 76 39 15.

**Neska euskalduna**  
naiz eta haurrak zaindu eta  
etxeko lanak egingo nituz-  
ke. ☎ 76 70 90.

**Andrea** eskeintzen da su-  
kaldari, garbiketa edo ume-  
zain lanetarako. ☎ 76 70 85.

**Tabernari lana** egingo  
lukeen neska bat naiz.  
☎ 76 04 57.

**Etxeko** lanak egin edo  
haurrak zainduko nituzke.  
Esperientzia. ☎ 76 70 15  
(Betatik aurrera).

**ZAPELAITZ***Taberna*

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

**TABERNA  
ZAHARRA***Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

Tfnoa: 76 21 21  
ANGIOZAR

**AGOITZ***Tapizdenda*

San Lorentzo, 25 BERGARA  
Tfnoa: 76 18 23

**Bolintxo**

O K I N D E G I A

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 beheha Telefonoa 76.01.26

*Kizkur*

**ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



*“Orain arteko lan guztiak gazteleraz antzeztu ditugu; etorkizunean gure erronka euskaraz egitea da”*

*“Herrian daukagun antzeztokirik egokiena Mariaren Lagundikoa da, eszenatoki aproposa du”*

**PEDRO MUJIKA, VIRAGO ANTZERKI TALDEKOA**

## **“Positiboa izango litzateke antzerkia hezkuntza arautuan sartzea”**

**Orain dela 5 urte sortu-tako Virago antzerki taldeko arduraduna da. Beti gustatu izan zaio antzerkia eta gaztetatik ibili da antzerki munduan murgilduta: 18 urte zituenean Keizpetako bidea taldean ibili zen; gero, Xiputz sortu zuen institutuan emandako ikastaro baten ondoren. Horrez gain, hainbat antzerki talde ekarri ditu Bergarara, tartean, *Els Joglars*. 37 urte ditu.**

**- Zein izan da Virago taldearen ibilbidea?**

- Orain arte bi lan antzeztu ditugu, *Entremeses* eta *Las criadas*. Lehenengoa, Cervantesen *La cueva de Salamanca* eta horrelako testu laburretan oinarrituta; komedia klasikoa. Bigarrena, Jean Genet-en testuan oinarritutakoa, dramatikoagoa. Beste arlo bat landu nahi genuen, komedia errazagoa delako. Egia esan ez ditugu emanaldi gehiegi eskaini, beste arrazoi batzuen artean oso ezagunak ez diren obrak eman ditugulako. Hala ere, taldekideontzat oso aberasgarria izan da eta asko ikasi dugu. Orain arteko



*Las Criadas, Viragok landutako antzeztanetako bat.*

lanak gazteleraz eman ditugu eta hori ere oztupoa izan da emanaldiak antolatzerako orduan.

**- Une honetan zertan diharduzue?**

- Beste lan bat prestatzen ari gara, Alejandro Casonaren *La Dama del alba*. Gerra osteko autore da Casona eta Margarita Xirguren konpainiak estreinatu zuen lehen aldiz Argentinan. Arrakasta haundia izan zuen 60ko hamarkadan estatuan. Lan honetan Leire Madiariagak egingo ditu zuzendari lanak eta ni aktore arituko naiz. Ikastaro bat antolatu genuen iaz eta

jende berria sartu zen taldean. Ondo eztabaidatu ondoren, antzeztan hau ere gazteleraz egitea erabaki genuen. Hala ere, hurrengoa euskaraz egitea da gure erronka. Gaur egun 11 lagun gaude, gazteenak 15 urte ditu eta zaharrena ni neu naiz.

**- Antzerki eskolaren premiarik badago?**

- Hezkuntza erreglatuan, karrera bezala, sartu nahi dute antzerkia, baina kontua berde samar dagoela uste dut. Sortuko balute oso positiboa izango litzateke, aktoreentzat ezezik, pintore, idazle, musiko edota tek-

nikoentzat ere irteera izango litzatekeelako. Madrilen, Bartzelonan edo Andaluzian badaude eskolak. Katalunian, esate baterako, orain dela 30 urte jarri zuten antzerki eskola; horretan gu baino aurreratuago daude. Antzerkian eta kulturaren gehiago gastatu beharko lukete politikoeak.

**- Antzeztana oso ezaguna ez bada edo aktore ospetsuak agertzen ez badira, antzerkia ikustera ez doa jende gehiegi.**

- Telebistan agertzeak eta aktore ezagunak izateak asko laguntzen du, baina hor dago Errenterriako Ur taldearen kasua, Shakespeare-ren lan batekin izugarritzko arrakasta lortu baitzuen.

**- Bergaran badago antzeztoki aproposik?**

- Herrian daukagun antzeztokirik egokiena Mariaren Lagundikoa da. Eszenatoki haundia du eta nahikoa jarleku daude, 700 lagunentzako tokia dago eta. Oztupoa eskilara asko igo behar direla da, baina bi montakargas jarritz gero, bat jendearentzako eta bestea trasteak igotzeko, arazo konponduko litzateke.

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A Ze FLAXA ETXAGI	53	20	100	35
2. ERROTAGAIN	46	20	86	51
3. JAUJA OH ZEREZOS	39	20	87	51
4. BAR CANALEJAS	38	19	69	55
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	26	20	80	74
6. AZPEITXI JATETXEA	23	19	62	61
7. OGIZUN	22	19	50	75
8. ORTZI	21	19	43	62
9. MADURA INDUSTRIAS GOI	20	19	50	77
10. ARLOTEAK/OILAGORRA	17	19	64	47
11. PAGOMENDI	17	19	45	66
12. MONGATXURRA	14	18	47	74
13. UFALA	11	18	40	61

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ETXAGI	36	18	70	57
2. ARTUSAMAK BERGATRANS	33	20	75	56
3. KAYAK OS JARDINEIROS	32	19	79	58
4. AGIÑASPI	30	20	59	60
5. HALTZARI	29	19	55	44
6. EZINLEIKE	28	20	66	65
7. LA JUVE	27	19	70	49
8. AGIRREBEÑA JATETXEA	24	18	59	56
9. ERI	23	18	54	74
10. SOROPOTROAK	22	18	44	45
11. AUTOBEREZI	19	19	71	93
12. INDARGORRI	17	19	44	96
13. UVE BIKOITZA JAM	0	0	0	0

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	48	20	85	36
2. FAC	43	19	90	44
3. PJS	35	20	75	55
4. JAKINA PATXARAN TEAM	33	21	83	63
5. NEKROFIKOS	33	19	72	68
6. TXIPIRON	32	19	62	46
7. NAHIKARI HOOLIGANS	30	21	72	60
8. MOSKIS	24	19	62	36
9. IGANDEKOAK	18	19	40	71
10. EH BITERRAK	16	19	43	64
11. GANBARA	16	19	63	75
12. MRW	14	19	60	77
13. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	19	42	101

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	57	19	150	26
2. ARBE KIROLAK	47	20	117	44
3. ETENGABE	38	19	59	41
4. SLO	37	20	89	42
5. MATXAKATEGI	32	19	72	40
6. XURRUPAK	27	19	40	74
7. KOMANDO PIPERRAK	25	20	64	90
8. PATA NEGRA	21	20	43	69
9. PANORAMIX	20	20	66	124
10. AMILOTX	19	20	42	70
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	13	19	43	104
12. ALDOKA MALDOKA	9	19	40	67
13. OSINTXU	0	0	0	0
14. PITTIXAK	0	0	0	0

## Jokoz kanpo



### Asier Agirrebeña

#### MONGATXURRA

#### ZER MODUZ TXAPELKETA?

Nahiko gaizki gabiltza, azkenurrekoak goaz eta ea datozen partidutan hobetzen dugun.

#### ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

Daukagun giroa eta txarrena... ez dakit.

#### KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Agian bai, baina ez dut gogoratzen.

#### TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa.

#### JOKALARIRIK ONENA?

Azkenaldian etortzen ez den arren, Asier Elorza.

#### SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

Ez dut gogoratzen, baina 8 gol sartu dizkiogu batenbati.

#### ETA JASOTAKOA?

10 eta 1 Jauja OH Zerezosek.

#### ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Tituloa lortzeko play offak jokatzeko sailkatzea nahiko genuke.

#### LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

#### MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Michael Jordan.

#### EUSKAL HERRIKOA?

Olano.

#### JATEKO PLATER BAT?

Amak gertatzen duen patata tortila.

#### EMAITZAK

MATXAKATEGI-AMILOTX	5-1
PATXARAN TEAM-NEKROFIKOS	4-3
NAHIKARI HOOLIGANS-PJS	8-1
POLIDEPORTIVO TABERNA-PATA NEGRA	1-3
JAUJA OH ZEREZOS-ERROTAGAIN	18-2
IGANDEKOAK-GUADALEST	0-3
PANORAMIX-XURRUPAK	0-1
SLO-MANITOU	3-14
ORTZI-MADURA INDUSTRIAS GOI	0-4
ARLOTEAK/OILAGORRA-AZPEITXI JATETXEA	1-2
MONGATXURRA-BAR CANALEJAS	4-5
BILDURBAREK OPEL/LAM-UFALA	9-1
KAYAK OS JARDINEIROS-ARTUSAMAK	2-10
EH BITERRAK-MOSKIS	3-4
GANBARA-TXIPIRON	5-2
SLO-XURRUPAK	6-2
PANORAMIX-PATA NEGRA	1-2
CONSTRUCCIONES BERGARA-MOSKIS	0-3
EH BITERRAK-MRW	0-2
AUTOBEREZI-AGIRREBEÑA JATETXEA	4-5
BILDURBAREK OPEL/LAM-ERROTAGAIN	2-6
OGIZUN-PAGOMENDI	4-3
JAUJA OH ZEREZOS-A Ze FLAXA ETXAGI	1-3
INDARGORRI-ETXAGI	1-8
SOROPOTROAK-AGIÑASPI	1-4
EZINLEIKE-ARTUSAMAK	8-2

#### PARTIDUAK

##### Zapatuan kanpoan

09:00: AMILOTX-PATA NEGRA • IGANDEKOAK
10:00: IGANDEKOAK-NAHIKARI HOOLIGANS • AMILOTX
12:00: POLIDEPORTIVO TABERNA-MANITOU • ETENGABE
03:00: MATXAKATEGI-ETENGABE • POLIDEPORTIVO
16:00: KAYAK OS JARDINEIROS-LA JUVE • EH BITERRAK
17:00: GANBARA-EH BITERRAK • MRW
08:00: FAC-MRW • MOSKIS
19:00: NEKROFIKOS-MOSKIS • FAC

##### Domekan barruan

09:00: UFALA-MADURA INDUSTRIAS GOI • SOROPOTROAK
10:00: SOROPOTROAK-AUTOBEREZI • KAYAK
11:00: KAYAK OS JARDINEIROS-AGIÑASPI • AUTOBEREZI
16:00: EZINLEIKE-LA JUVE • ERI
17:00: INDARGORRI-FERI • HALTZARI
18:00: HALTZARI-ETXAGI • ARLOTEAK/OILGORRA
19:00: ARLOTEAK/OILAGORRA-BAR CANALEJAS • ORTZI
20:00: ORTZI-AZPEITXI JATETXEA • BAR CANALEJAS

##### Domekan kanpoan

09:00: FAC-TXIPIRON • SLO
10:00: PANORAMIX-SLO • PJS
11:00: PATXARAN TEAM-PJS • PANORAMIX
16:00: ARBE KIROLAK-ALDOKA • CONST. BERGARA
17:00: CONST. BERGARA-MRW • NAHIKARI HOOLIGANS
18:00: NAHIKARI HOOLIGANS-GUADALEST • GANBARA
19:00: GANBARA-MOSKIS • GUADALEST

**T**XINPARTAK

**Euskal Herriko igerilari onenak Agorrosinen**

Bergara Igeri elkartearen 25. urtemuga egun hauetan ospatzen dela eta, zapatuan eta igandean senior eta junior mailako selekzioen Euskadiko txapelketak jokatu dira Agorrosineko igerilekuan. Euskal Herri mailako igerilari onenak izango ditugu. Jesus Jauregi herriko igeri taldeko monitorea adierazi digunez, *“maila oso ona izango da; gainera, onenak, 15 egun barru Estatu mailako txapelketan arituko dira Euskal Herria ordezkatzuz”*. Horien artean Eneritz Muguruza igerilari bergararra. Muguruzak 50 metro tximeletan, 100 askeetan eta errelebo probetan hartuko du parte Gipuzkoako selekzioa ordezkatzuz.



Benetan ikusgarria izan ziren larunbateko jeitsierak.

**Aritz bigarren**

Aritz Linazisoro bigarren postuan sailkatu zen Uberan jokatuako Euskadiko mendiko bizikleta jeitsieren openean. Juan Antonio Arrindak irabazi zuen eta 3. postuan Nacho Valenciano sailkatu zen. Lasterketa ikustera jende asko joan zen eta erorketa asko izan ziren. 108 partehartzaile izan ziren eta irabazleak 3 minutu 44 segundu eta 55 ehuneko denbora egin zuen.

**Txapelaren bila**

BKEko pilotariak Deba Arroko finalak jokatu dituzte igandean goizeko 11etan Arrasaten. Senior mailan Muruamendiarezek eta Idiakezek, Ubera eta Berraondo Elgetako ordezkarien aurka, eta kadete mailan, berriaz, Muguruza eta Redondok, Eraña eta Alzola atxabaltarren aurka. Bestalde, Gipuzkoako Herrien Arteko txapelketako lehenengo kanporaketatik kanpo geratu da BKE.



BKEko taldeak irabazle izateko aukerak ditu igandean.

**Euskadiko boccia txapelketa ostegunean**

Euskadiko boccia txapelketa jokatu da eguenean goizeko 10etan Labegaraieta kiroldegian. Txapelketa banaka eta ranpa modalitateetan jokatu da eta antolaketa Dordoka klubaren esku dago. Txapelketan Bergarako taldeak ere parte hartuko du eta azkenengo egunotan gogor ari dira entrenatzen, emaitza onak lortu ditzaketela uste baitute. Argazkian, Ipintza institutoko gimnasioan, Bergarako boccia taldekoak, astero egin ohi duten entrenamenduetako batean.





## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

- ◆ **Bergara-Hondarribi**  
Neskak.  
Zapatua. 16:30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Mariño**  
Lehen mailako infantilak.  
Domeka. 10:15. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Ordizia**  
2. mailako jubenilak.  
Domeka. 11:30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Lazkao**  
Preferente maila.  
Domeka. 17:00. Ipintza.

## ESKUBALOA

- ◆ **Bergara-Urola (Zumarraga)**  
Kadeta mutilak.  
Zapatua. 18:00. Kiroldegia.
- ◆ **Iraundi Bergara-Ormaiztegi**  
Senior mutilak.  
Zapatua. 19:15. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Arrate**  
Kadete neskek.  
Domeka. 12:15. Kiroldegia.

## SASKIBALOA

- ◆ **Ibili BKE-Manuel Lekuona**  
Senior mutilak.  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

NESKEN 3.FUTBITO  
TXAPELKETA

- ◆ **Blue Star-LTB**  
Domeka. 13:00.  
Migel Altuna Institutua.
- ◆ **Power-Nahikari**  
Domeka. 16:00.  
Migel Altuna Institutua.
- ◆ **Potzu-Burdinezko**  
Domeka. 17:00.  
Migel Altuna Institutua.
- ◆ **Gu Geu-PWA**  
Domeka. 18:00.  
Migel Altuna Institutua.

# Fernando Markina

## Arku tiraketa elkarteak helburu

**Fernando Markinak 5 urte daramatza arku tiraketa egiten eta orain arte bere aldetik ibili da. Bergaran arku tiraketarako dagoen zaletasuna ikusita, elkarte bat sortzeko asmoa du. Ia egunero San Martzialen entrenatzen du.**

**- Zela hasi zinen arku tiraketan?**

- Betidanik gustatu izan zaizkit punteria egiteko kirolak. Arkuak erosi aurretik eskopetarekin aritzen nintzen, karabina-ekin eta haize konprimi-tuko pistolekin tiratzea ere asko gustatu izan zait. Duela 5 urte inguru, Udal Kirol Zerbitzuak antolatu zuen arku tiraketa ikastaro batean apuntatu nintzen, eta oraindik jarraitzen dut. Ordutik nire kontura ibili naiz eta ahal dudanean San Martzialera arkuarekin tiratzera joaten naiz. Hasieran nahiko kirol nekeza da eta emaitzak lortzeko asko ibili behar da.

**- Elkarteak sortzeko asmoa noiz sortu zitzaizun?**

- Gabonetan Arrasaten izan zen arku tiraketa erakustaldi batean izan nintzen eta Legazpiko elkartearekin harremanetan jarri nintzen. Hamabostean behin Legazpira joaten naiz eurekin egotera. Dagoeneko jarri dira nirekin harremanetan tiratzaile batzuk eta lehenbailehen San Martzialen bilera bat konbokatzeko asmoa daukat. Apuntatzen den jendearekin klu-

baren estatutuak jarriko genituzke eta lanean hasiko ginatke.

**- Ze helburu izango ditu elkarteak?**

- Lehenik eta behin Bergaran oraindik zehaztu barik daukagun erakustaldi bat antolatzeko asmoa dugu. Halaber, antolatzen diren txapelketetara joateko asmoa ere badugu.

**- Animalien kontra jaurtitzen duzu?**

- Ez, bakarrik geldirik dauden dianei jaurtitzen diet. Halere, badakit joan zen Gabonetan, lagun batek esanda, 140 kiloko

basurde bat fletxa batekin garbitu zutela. Fletxek indar handia hartzen dute eta 100 metrora pertsona bat harrapatuz gero, hezurrik harrapatzen ez badu, hil egin dezake.

**- Ze distantziara botatzen aritzen zara?**

- 30 eta 50 metrotara botatzen aritzen naiz. Gehiagora ez dut botatzen ez dagoelako toki aproposik.

**- Zer behar da arkuarekin tiratzeko?**

- Jaurtitzeko teknika ondo ikasi behar da. Pulso ona eta ikusmena ere oso garrantzitsuak dira.



"Betidanik gustatu izan zaizkit punteria egiteko kirolak".

## "Geldirik dauden dianen kontra bakarrik jaurtitzen dut"



Argazkia: Pol-Pol Mendizale Taldea

## Pol-Poleko mendizaleak Itxumendin

**M**endi Astea hastera doala eta, herriko mendizale fin batzuren (orduan behintzat) argazkia dakarzkizuegu aste honetako erretratu zaharrear. Argazkia orain dela 16 bat urte aterata dago eta ziurrenik urtarilaren lekoa izango da, gaur egun bezala orduan ere urteko lehen egunean Pol-Polekoek Itxumendira irteera egiten zuten eta. Jertsei sendoa eta txubaskeroa jantzi, Olentzerok ekarritako mendiko botak estrainatu eta ohizko buelta ematera joan zen goiko kuadrila hau euriari aurre eginez. Ondoren, ohiturari jarraituz, salda beroa eta txorizoa hartuko zuten Gorlan. Bezperako juergaren arrastoak kendu eta urte berria sasoi betean hasteko plan ezinhobea....

Hara hor argazkikoen izenak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Juan Mari Errasti, Benjamin Larrañaga, Loli Larrañaga, Iñaki Andueza, Enrike Txintxurreta "Txintxu", Beatriz Zeziaga, Maria Jesus Zabaleta eta Patxi Retolaza.

**Makurtuta:** Migel Angel Lazpiur "Mesner", Gregorio Plazaola, Pedro Belastegi "Peito", Andoni Larrañaga, Iñaki Larrañaga, Karmelo Iturrospe eta Eider Iturrospe.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89  
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08




San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**umelaga**  
JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!**

# Kolorea:

Osasun, Bizi eta Edertasun Iturri



## LILURA

ARMONIZAZIO ESTETIKO,  
FISIKO ETA ANIMIKORAKO ZENTRUA

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Tlf. 76 31 71

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
 Batetik, kalitate eta diseinu  
 handieneko logelak, garantia osoarekin.  
 Bestetik, logela merkeen artean  
 merkeenak.

**BENETAN  
 HARRIGARRIA!**


**LARUNBAT ARRATSALDEETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabiloia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

**ARKAUZ**

**sukalde integrala**

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian  
 Betiko muntaiak



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55